

LURDES IMAZ, EHIGE

«Gurasoek eskolako erabakietan esku-hartze handiagoa dutenean, ikasleek emaitza hobeak dituzte»

Euskal Eskola Publikoaren Jaia ospatuko dute Elgoibarren, ekainaren 7an. Hezkuntzak bizi dituen garai arantzatsu hauetan gurasoek duten rola, parte-hartzea eta erantzukizuna izan ditugu hizpide Lurdes Imaz Euskal Herriko Gurasoen Elkarteko bozeramailearekin (EHIGE).

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |



LOMCE eta Heziberri tarteko, protagonismoa hartu duzue gurasoek. Eusko Jaurlaritzak erabaki du EAEko 30 ikastetxetan egitea 3. mailako azterketa diagnostikoa (8-9 urteko haurrei) eta planto egitera deitu dituzue gurasoak.

Bai, aurtengoak proba pilotuak dira, ezkutuan eginak, eta hurrengo ikasturteetik aurrera eskola denetan martxan jartzea da asmoa. Hasieratik LOMCEren aurka agertu gara eta bi urte daramatzagu ikastetxeetan hitzaldiak ematen,

lehen LOMCeri buruz, orain Heziberriri buruz. Gurasoek beti galdetu digute: “Eta guk zer egin dezakegu?”. Lasai egoteko, proposamenak egingo dizkiegula erantzuten diegu, eta orain neurri zehatz hau planteatu diegu: azterketa ez egitea, LOMCEren aplikazio garbia delako eta orain arteko ebaluazio sistema hankaz gora jartzen duelako (azterketak ez du inongo justifikaziorik, eta hezkuntzan egiten diren aldaketek arrazoituriko justifikazioa

behar dute). Akademikoki ez du eraginik seme-alabentzat, eta beraz uste dugu gurasoei hori eskatu diezaiekegula eta LOM-CEren eta Heziberriren kontra daudela agertzeko modua dela, orain arteko bileretan zerbait egiteko grina ikusi baitugu gurasoengan. Lasaitzen saiatzea izan da gure egitekoa, seme-alabentzat inongo ondorioz ez duela izango argitzea. Gurasoak gara hau egin behar dugunak, irakasleek edo zuzendari-
tzek planto eginez gero ondorioak izan ditzaketelako, baina ikastetxeen eta eskola kontseiluaren babesa ere eskatu dugu.

Aurrera begira bestelako ekintza zehatzik pentsatu duzue?

Datorren ikasturtean Heziberri martxan jarriko da eta gauza berriak joango gara planteatzen. Adibidez, argi dugu eskola orduetan ez dela erlijiorik eman behar, ezta Erlijioa ikasgaia ahalbidetzen duen Baloreak ikasgai alternatiboa ere, eta ildo horretan proposamena egingo dugu aurrerago.

Eusko Jaurilaritzak aurkezturiko Heziberri planarekin ez zaudete gustura. Kritikatu duzue ikasleen banaketa ekitatiboa ez duela ziurtatzen.

Heziberri ez du ezer esaten ikasleak hartzeko unean sare ezberdinek izan behar duten arduraz, eta mota anitzeko ikasleak baldin badiugu, sareek ardura partekatua izan behar dute. Datuek argi diote premia berezia duten ikasleak, beka jaso dutenak (maila sozioekonomiko baxuagoa duten familietakoak) eta etorkinen seme-alabak sare publikoan daudela batez ere, ondoren kristau eskolan eta kopuru txikiena ikastolek dute. Banaketa orekatuagoa eskatzen dugu, eta hau ez da hezkuntza mailako eztabaida, gizarte osoarena baizik: eskolara eta herriko diagnosti-

“Gurasoek egin behar diogu planto azterketari, irakasleek ondorioak izan ditzaketelako. Baina ikastetxeen babesa ere eskatu dugu”

koa egin eta herrietan gaia mahai gainean jarri beharko litzateke (ikastetxeen eta udalaren parte-hartzearekin), ikasle guztiak hartzeko ardura behar bezala partekatu dadin. Ghettoak amaitu behar dira, eta aldi berean, behar bereziak dituzten haurrak hartzen dituzten eskolek baliabide gehiago izan behar dituzte, erantzun egokia eman ahal izateko.

Hizkuntza ereduak mantenduko ditu Heziberri (A, B, D). Hori ere ez duzue ongi ikusi.

Beti esan dugu hizkuntza ereduak gaintitu egin behar direla, A ereduak ghettoak direlako, normalean maila sozioekonomiko baxuko familien seme-alabenak, eta linguistikoki traba berri bat jartzen diegu. Ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza proiektua finkatu behar du, ikastetxeak dakielako ongien nolako ikasleak eta beharrak dituen, eta horren arabera berak erabaki behar du plana, bermatu dadin derrigorrezko hezkuntza bukatzean ikasle guztiak elebidun izango direla. Adibidez, ele-

bitasunak arazoak dituen lekuetan ezin da hirugarren hizkuntza bat planteatu, lehenik eta behin bermatu beharko delako ikasle guztiek euskara maila ona izatea. Eta helburu horretara iristeko ikastetxeari behar dituen baliabideak eman behar zaizkio.

“Ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza proiektua finkatu behar du, ikasle elebidunak ziurtatzeko. Elebitasunak arazoak dituen lekuetan ezin da hirugarren hizkuntza planteatu”

Euskal Eskolaren Lege berria egitea izango da Heziberriren hurrengo urratsa. Sare publikoaz gain, sare kontzertatua ere legean integratzea da xedea.

1993ko Eskola Publikoaren Legea daukagu eta hezkuntza sistema guztiarentzako legea planteatu du orain Hezkuntza Sailak. Sare kontzertatuak asmoa agertu du publikotasunaren kontzeptua berrikusteko, zerbitzu publikoa ematen dutela argudio. Baina gauza bat da zer-



elgoibar
biZi-biZiXa!



GUSTATZEN JATA, JAKU
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Elgoibar / Ekainak 7

Elgoibarko Udala ere Euskal Eskola Publikoarekin bat
www.elgoibar.eus



Aurten Elgoibarren izango da eskola publikoaren jaia. “Bertako ikastetxea bada eskola publikoaren isla: ikasleak euskalduntzeko lan handia egiten du, eskola anitza da, oso parte-hartzailea eta berritzailea (proiektuka egiten dute lan)”.

bitzu publikoa ematea eta beste bat publiko izatea; taxiak zerbitzu publikoa ematen du, baina ez da publikoa... Beste arlo batzuetan argi ikusten dugu, inori ez zaio bururatzen IMQ aseguru mediku pribatuaren txartela eskatzea osasun publikoko esku-bide gisa, baina hezkuntzan ez dakit zergatik jarri behar den zalantzan zer den publikoa eta zer ez. Guk oso argi daukagu: sare publikoa da ikasle guztiak hartzen dituen eta laikoa dena. Sare kontzertatuek ezin dute orain arte bezala jarraitu, nahi dutena egiteko autonomia guztiarekin eta beharra duten ikasleak hartzeko inongo ardu-

“Lege berriak sare publikoa eta kontzertatua hartuko baditu, edo joko arauak berdintzen ditugu, edo ez dago jokorik”



rarik gabe, eta aldi berean finantzazio handiagoa eskatu, batez ere kontuan hartuta sare publikoan une hauetan ditugun beharrak. Edo denok partida bera jokatzen dugu, joko arauak berdintzen ditugu, edo ez dago jokorik. Gogoratu Euskal Herrian sare publiko txikiena duena dela EAE (ikastetxeen %50), zer esanik ez Europako herrialdeekin konparatuta.

Gurasoen ordezkariak nahikoa pisu al du ikastetxeetan?

Bi modutara hartzen dute parte gurasoek. Batetik eskola kontseiluaren bidez, eta bestetik guraso elkarten eta eurek (edo ikastetxeak) bultzaturiko proiektu zehatzen bidez. Eskola kontseiluan dugun ordezkariak ona da, erdia gurasoak gara Lehen Hezkuntzan, eta Bigarren Hezkuntzan ikasleen parte-hartzea sartzen da eta gurasoena jaitsi, baina logikoa da eta ongi iruditzen zaigu. Arazoa da sarri oso zurrina dela araudia, Hezkuntza Sailatik planteamendu oso itxiak datozela eta aukera gutxi dagoela bestelako proposamenak egiteko. Sailak malguagoa izan beharko lukeela uste dugu, benetako parte-hartzea egon dadin eta ikastetxeak berak nahi dituen proiektuak egiteko.

Talka

“Guraso eta irakasleen artean talka egon daiteke, leku guztietan bezala, baina abiapuntua da denok interes bera dugula. EHIGEkoak elkarlanean aritzen gara zuzendaritza elkarteekin eta akordioak lortzen saiatzen gara beti, batzuen eta besteen posizioak gerturatuz. Egutegiak adostea adibidez zaila izaten da, baina denontzako egokiena erabakitzen dugu”.

 GARRAXI TABERNA	GARRAXI JATETXE BEGETARIANO, BEGANOA Eguneko menua 11 € Eguneko platera 8,5 € Aste buru eta gauetan karta, entsaladak, arrozak, pizzak, guakamole eta askoz gehiago.. Tejeria kalea 9, 20012 Donostia · Gipuzkoa ☎ 943 27 52 69	
--	---	---

«Jantokiko menua gurasoek osatuko dute lau eskolatan»

“LEHEN BAZEUDEN jantokia auto-kudeatzen zuten eskolak, baina Eusko Jaurlaritzak araudia atera zuen ikastetxeak catering sistemara derrigortuz. Bi ikastetxek (Altzaga eta Larrabetzukoak) erabaki zuten jantokia eurek kudeatzen jarraitzea eta ondorioz arauditik kanpo daude, ez dute dirurik jasotzen Hezkuntza Sailetik, nolabait zigortu egiten dituzte. Berrikuntza da datorren

ikasturtean proiektu pilotua abiatuko dela lau ikastetxetan: horietan, gurasoek aukera izango dute elikagaiak erosteko eta menuak osatzeko. Horrek ahalbidetuko du herrian edo inguruan erostea produktuak, eta esaterako kostaldean arrain freskoa jan ahal izatea, gaur egun gertatzen ez dena. Jaurlaritzarentzat oso erosoa da catering bidez gestioztatzea, dirua eman eta kontrolak-eta

haien esku uzten dituztelako, baina gurasoentzako gai gakoa da eta proiektu pilotuak ondo funtzionatzaren badu, sistema osora zabaldu ahal izatea espero dugu. Hori lortu bitartean, aldaketa txikiak egin daitetzkeela uste dugu: adibidez, catering enpresaren eta familien artean harreman gehiago egotea, menuaren inguruan iritzia helarazi ahal izatea gutxienez”.

tuak aurrera atera ditzan. Hezkuntza Sailari beldurra galdu behar diogu, eskolak autonomia izan behar du erabakitzeke zer egin nahi duen, eta ildo horretan, ikastetxeen autonomia gartzeko benetako markoa behar du eskola publikoak. Parte-hartzean maila ugari daude, informazioa jasotzetik hasi eta erabakitzeke ahalmena izateraino, eta argi ikusi dugu gurasoek zenbat eta parte-hartze maila altuagoa izan, orduan eta hobeagoak direla ikasleek lortzen dituzten emaitzak. Horregatik, erabaki inportanteetan gurasoek benetan parte hartzea sustatu behar da; Finlandian adibidez, gurasoek aukera daukate curriculumean esku hartzeko.

Eskola kontseilueta aritzeaz gain, guraso elkarteetan ere lan oparoa egiten duzue.

Guraso elkarteak da eskola eta inguruaren artean zubi-lana egiten duena. Ikasle berriak datozenean adibidez, familiari harrera egiteaz arduratzen da, zuzendaritzarekin batera. Guraso eskolak ere antolatzen ditugu, sare sozialez, hezkuntza emozionalaz... Guraso elkarteek lan pila bat egiten dute, baina ez da ezagutza ematen, eta inportantea da hori guztia zabaldu eta elkarbanatzea, horregatik jardunaldiak antolatu izan ditugu, praktika onen sariak ere eman ditugu eta liburuxketan bildu dira gurasoek beraiek ikastetxeetan bultzaturiko proiektuak. Ikastetxeak dituen beharren arabera zientzia, elkarbizitza, kulturantzatasuna, euskara... jorratzeko sekulako lana egiten dute, eta hori gainerakoekin elkarbanatzea garrantzitsua da.

Azpiegitura falta salatu izan duzue.

Bost-sei urteko atzerapena dugu obretan eta behar handiak daude ikastetxeetan, eraikinak egin edo daudenak berritzeko. Diagnostikoa egiten ari gara eta denetarik dugu: barrakoie-

tan dauden ikasleak, estaltzea behar duten jolastoki asko, leihoak-eta konpontzea behar dutenak...

Testu-liburuak neurri batean gurasoek ordaindu behar izatea ere kritikatu duzue.

Testu-liburuak kudeatzeko programa solidarioa du martxan Jaurlaritzak: ikastetxeak liburuak erosten ditu, lau urterako erabilgarri; Hezkuntza Sailak kostuaren %75 ordaintzen du eta familiak %25. Gure ustez liburuak debalde izan beharko lukete, material curriculumra delako, baina ongi ikusten dugu liburuak ez izatea ikaslearenak, baizik eskolarenak, eta proiektu solidarioaren bidez ikasleek liburuak zaintzea, gero beste batek erabiliko dituelako. Kontua da aspalditik aldarrikatzen dugula material digitalerako pausoa ematea eta eskola publikorako digitalizazio plan bat eskatu diogu Sailari, elkarlanean egingo genukeena: nola gauzatu trantsizioa liburuetatik material digitalera, zeintzuk diren euskarri digital egokiak, nola finantzatzeko diren... Digitalizazioa gakoa da, atzean ez geratzeko. ■

“Sarri planteamendu oso itxiak datoz Hezkuntza Sailetik eta aukera gutxi dago bestelako proposamenak egiteko”

